

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2009	R4/2012	2012/03/30	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZaren saldoak pasatzea (xurgapena)

Ebazpena: R 4/2012

Espedientea: 4/2009

Gasteizen, 2012ko martxoaren 30ean

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada lehendakari jaunak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunek osatuak, honako

## **ERABAKIA**

hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioen aurka planteatutako gatazkari buruz, non auzia baita argitzea administrazio horietatik zeini dagokion konpentsatzea, eta kasua bada, itzultzea, 1ENTITATEA (IFZ: ...) sozietateak, 2ENTITATEA (IFZ: ...) sozietateak xurgatu zuenean, konpentsatzeko zeuzkan BEZaren saldoak. Gatazka 4/2009 espediente zenbakiaz tramitatzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

## **I. AURREKARIAK**

1.Gatazka hau Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatu zuen 2009ko martxoaren 11ko idazki baten bidez. Idazki horren sarrera hilaren 13an erregistratu zen Arbitraje Batzorde honetan.

2.Honako aurrekari hauek ondorioztatzen dira espedientetik:

- 1ENTITATEA sozietateak Gipuzkoan zeukan egoitza fiskala 2007an. BEZaren ondorioetarako, 2006an egindako eragiketen bolumena 6 milioi

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2009	R4/2012	2012/03/30	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZaren saldoak pasatzea (xurgapena)

eurotik gorakoa izan zen; bolumen horren proportzioan tributatu zuen, eta %100 lurralde komunari zegokion.

- Entitate hori Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren (ZAEA) Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziko Enpresa Handiak Kudeatzeko Unitateari (EHKU) atxikita zegoen, enpresa handi gisa eta BEZ Legean aurreikusitako Esportatzaileen eta Bestelako Operadore Ekonomikoen erregistroan inskribatuta, eta, beraz, hil bakoitzaren amaieran bere alde zeuzkan saldoak itzultzea eskatzeko ahalmena zeukan.

- 2007ko ekainaren 11n, eskritura publikoan jaso zen 2ENTITATEA entitateak, Egoitza fiskala Gipuzkoan zuenak, 1ENTITATEA sozietatea xurgatzeko fusio akordioa. 1ENTITATEA likidatu gabe desegin zen.

- 2ENTITATEA entitateak, egoitza fiskala Gipuzkoan zuenak, 6 milioi eurotik gorako eragiketa bolumena izan zuen 2007an BEZaren ondorioetarako, eta hainbat administrazioetan tributatu zuen, honako proportzioan: Estatuan, %53,71; Gipuzkoan, %25,72; Nafarroan, %16,67; Bizkaian, %3,90.

- 2ENTITATEA entitatea ere ZAEAREN EAeko Ordezkaritza Bereziko EHKUari atxikita dago, enpresa handi gisa eta aipatutako Hileko Itzulketen Erregistroan inskribatuta dago.

- Desegin zenean, 1ENTITATEA entitateak konpentsatzeko BEZ saldo batzuk zituen, eta 2007ko 12 epealdiari zegokion BEZ autolikidazioa aurkeztu zuen ZAEAn 2008ko urtarrilaren 15ean, bere aldeko saldoa, 1ZENBATEKOA eurokoa, itzul zekiola eskatzeko.

- 2008ko apirilaren 14an, ZAEAREN EAeko Ordezkaritza Bereziko EHKUak behin-behineko likidazio proposamena jakinarazi zuen. Proposamen horretan,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2009	R4/2012	2012/03/30	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZaren saldoak pasatzea (xurgapena)

dirua itzultzeko eskaera ezesten zuen, ulertzen zuelako, xurgapen bidezko fusioak eragindako ondorengotza unibertsaleko tituluaren bidez, jasandako BEZaren saldoa xurgatzailearen ondarean integratuta geratu zela, eta, beraz, xurgatzailea zela konpentsatzeko edo itzultzeko eskubidea egikaritzea zegokiona. Ohar bedi ez dela esaten ZAEA ez denik dirua itzultzeko eskumena duen estatuko administrazioa, baizik eta, erabat diferentea dena, eskaera sozietate xurgatzaileak aurkeztu behar duela, ez xurgatuak. (Hala ere, behin-behineko likidazioa atzeratu egin zen 2008ko abenduaren 23ra arte, eta hurrengo urtarrilaren 9an jakinarazi zen. Bertan adierazten zen, erabakia eman zen egunerako sozietate xurgatzaileak (2ENTITATEAK) bere BEZ aitorpenetan konpentsatu zuela sozietate xurgatuak (1ENTITATEAK) bere alde zeukan saldo osoa, eta, beraz, ez zela bidezkoa 2007/12 epealdiko BEZa itzultzea. Ez dago jasota behin-behineko likidazio hori berraztertzeke errekurritu ote den edo erreklamazio ekonomiko-administratiborik jarri ote den.

- 2008ko apirilaren 23an, 2ENTITATEAK, 1ENTITATEAREN eskubide eta obligazioen ondorengo unibertsal gisa, likidazio proposamen horren aurkako alegazio idazkia aurkeztu zuen. Idazki horretan argudiatzen zen funtsean, xurgatuak sortutako saldoa hark tributatzeko Administrazioak hartu behar zuela bere gain, eta ez xurgatzaileak tributatzeko Administrazioak.

- 2008ko apirilaren 17an, 2ENTITATEAK 2008ko 03 epealdiari zegokion hileko BEZ aitorpena –332 erdua– aurkeztu zuen ZAEAN, 2ZENBATEKOA euro "itzultzeko" eta 3ZENBATEKOA euro "konpentsatzeko" emaitzarekin.

- 2008ko apirilaren 23an, 2ENTITATEAK idazki bat aurkeztu zuen ZAEAN, azaltzeko, aipatu berri den aitorpenean, jasandako BEZ kengarriaren zenbatekoan (4ZENBATEKOA euro) sartuta zeudela xurgatuak jasandako zenbatekoa (1ZENBATEKOA euro) eta epealdi berean xurgatzaileak berak sortutako BEZaren kuoten zenbatekoa (5ZENBATEKOA euro).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2009	R4/2012	2012/03/30	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZaren saldoak pasatzea (xurgapena)

- Izan ere, hileko aitorten hori aztertuta ikusten da 1 ENTITATEAK jasandako BEZa 22 laukian sartu dela (aurreko eragiketetan jasandako kuoten kenkaria) eta ez 34 laukian (aurreko epealdietako konpentsatu beharreko kuotak). Datu hori funtsezkoa da, horretan oinarritzen delako 2008ko uztailaren 1ean ZAEAK egindako behin-behineko ebazpen proposamena, gero aipatuko duguna.

- ZAEAK itzuli zuen 2008ko maiatzaren 5ean zergapekoak 2008ko 03 epealdiari buruz aurkeztutako BEZ aitorpenean eskatzen zuen zenbatekoa (2ZENBATEKOA euro).

- Egun horren aurretik, 2008ko apirilaren 22an zehazki, 2 ENTITATEAK Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu zuen 2008ko martxoari zegokion hileko aitortpena, 330 eredu, 6ZENBATEKOA euro ordaintzeko emaitzarekin.

- Hala ere, handik egun batzuetara, aitorten hori zuzentzea eskatzeko idazki bat aurkeztu zuen Aldundian, aurreko aitortpena ordeztzeko behar bezala betetako 330 eredu batekin batera. Zuzenketaren arrazoia zen aitorpenean sartzea –izan ere, lehen ez baitzuen sartu– 1ZENBATEKOA euroko zenbatekoa, 1 ENTITATEA merkataritza sozietateak bere alde zeukan jasandako BEZaren kuotari zegokiona. Eskaera hori ezetsi egin zuen 2008ko maiatzaren 23an Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko zerbitzuburuak.

- 2008ko maiatzaren 19an, 2 ENTITATEAK 2008ko 04 epealdiari zegokion hileko BEZ aitortpena -332 eredu– aurkeztu zuen ZAEAn, 7ZENBATEKOA euro itzultzeko eta 8ZENBATEKOA euro "ondorengo epealdietan konpentsatzeko" emaitzarekin. 34 laukian, aurreko epealdietako konpentsatu beharreko kuotetan, 3ZENBATEKOA euroko kopurua zehazten da. 2008ko maiatzaren 30ean itzuli zuen eskatutako zenbatekoa ZAEAK. Berrito ere, gero

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2009	R4/2012	2012/03/30	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZaren saldoak pasatzea (xurgapena)

aipatuko dugun 2008ko uztailaren 1eko behin-behineko likidazio proposamenaren arabera, 3ZENBATEKOA jarri beharrean, 9ZENBATEKOA jarri behar zen. Kasu horretan, itzuli beharreko kopurua berdina izango litzateke, baina ondorengo epealdietan konpentsatu beharreko kopurua aldatuko litzateke, 8ZENBATEKOA eurotik 10ZENBATEKOA eurora.

-2008ko ekainaren 20an, 2ENTITATEAK maiatzari zegokion hileko BEZ aitorpena -332 eredu- aurkeztu zuen ZAEAn, 11ZENBATEKOA euro itzultzeko eta 12ZENBATEKOA euro "ondorengo epealdietan konpentsatzeko" emaitzarekin. 34 laukian, aurreko epealdietako konpentsatu beharreko kuotetan, 8ZENBATEKOA euroko kopurua zehazten da. 2008ko uztailaren 1ean, behin-behineko likidazio proposamena egin zuen ZAEAk, eta uztailaren 15ean jakinarazi zen. Proposamen horretan 11ZENBATEKOA euro itzultzea eta 13ZENBATEKOA euro konpentsatzea ateratzen da, aurreko epealdietako kuoten konpentsazioa (azaldu den bezala, 03 eta 04 epealdietakoa) ez zelako zuzena, ez zirelako bete BEZ Legeko 99. artikuluko bost apartatuan ezarritako mugak. Izan ere, entitateak zehaztutako 8ZENBATEKOA euroko kopuruaren orde, ZAEAk irizten du 10ZENBATEKOA eurokoa jarri behar dela.

- ZAEARA 2008ko uztailaren 16an bidalitako fax baten bidez, 2ENTITATEAK adierazi zuen: ados gaude eta ez dugu puntu horri buruzko alegaziorik egingo.

- ZAEAK behin-behineko likidazioari buruz 2008ko abuztuaren 7an eman zuen -eta hilaren 14an jakinarazi zen- erabakia bat zettorren uztailaren 1eko proposamenarekin. Ez dago jasota likidazio horren kontra 2ENTITATEAK berraztertze errekurtsorik edo erreklamazio ekonomiko-administratiborik jarri duenik. Jasota dago, 2008ko abuztuaren 11n emana zegoela 11ZENBATEKOA euro, behin-behineko likidazio horren zenbateko likidoa, ordaintzeko agindua.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2009	R4/2012	2012/03/30	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZaren saldoak pasatzea (xurgapena)

- Gipuzkoako Foru Aldundiak 2009ko urtarrilaren 12an emandako –eta ZAEARI urtarrilaren 13an jakinarazitako– 9/2009 Foru Aginduaren bidez, Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak deklaratu zuen ez zuela eskumenik, 2ENTITATEAK eskatzen zuen bezala, 2008ko 03 epealdiko BEZaren aitortpen-likidazioa aldatzea onartzeko (330 eredu), eta 1ENTITATEA entitateak jasandako BEZ kengarriaren kuotei zegokien 1ZENBATEKOA sartzeko, xurgapena egin zenean 1ENTITATEAK Estatuko Zerga Administrazioan bakarrik tributatzen zuelako, eta Administrazio horri irizten diolako eskuduna txosten horretako itzulketa egiteko.

- Arbitraje Batzordeak, 2009ko apirilaren 3an egindako bileran, gatazka izapidetzeko onartzea erabaki zuen, eta 2009ko apirilaren 15ean jakinarazi zion ZAEARI, hilabeteko epea emanda alegazioak aurkez zitzan. 2009ko maiatzaren 12an aurkeztu zuen alegazio idazkia eta hilaren 14an eman zitzaion sarrera erregistroan. 2ENTITATEARI ere jakinarazi zitzaion izapidetzeko onartu izana, baina ez zuen alegaziorik aurkeztu.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka honetan ebatzi beharreko eztabaida da egoitza non zuen entitateak 2006ko otsailaren 17an eratu zenetik eta 2007ko apirilaren 11ra bitartean, ZAEAK "atzera eragineko epealdia" esaten dion horretan Arabako Foru Aldundiak egoitza lurralde komunera aldatzeko proposatu eta hark hasiera batean onartu ez zuen garaian. Bi Administrazioak ados daude bigarren data horretatik aurrera egoitza lurralde komunean dagoela.

2. ZAEAREN alegazio idazkiko hirugarren apartatuan, "1ENTITATEA entitate iraungiak, 2ENTITATEAK ondorengotza hartu zionak, 2007ko ekitaldian sortutako BEZA ordainarazteko eta itzultzeko eskumena duen Administrazioa" izenekoan, honela dio:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2009	R4/2012	2012/03/30	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZaren saldoak pasatzea (xurgapena)

"ZAEAk 2ENTITATEAren 2008ko ekitaldiko 05 epealdiko hileko BEZ aitortpenari buruz egin zuen likidazioan onartzen zituen "aurreko epealdietako konpentsatu beharreko kuota" gisa zergapekoak 03 epealdiko aitortpenean jasandako BEZ gisa deklaratuak, entitate xurgatuak konpentsatzeko zeuzkan kuotei zegozkienak (1ZENBATEKOA euro)".

Eransten du: "ZAEAk, Administrazio eskuduna denez, entitate xurgatuak konpentsatzeko zeuzkan saldo guztiak onartu ditu, entitate xurgatzaileari egindako behin-behineko likidazioaren bidez".

Beraz, konklusio gisa amaitzen du: "irizten da ZAEA dela Zerga Administrazio eskuduna 2ENTITATEA zergapekoak, 1ENTITATEA entitatearen ondorengo gisa, eskatutakoaren arabera, 2008ko ekitaldiko BEZa ordainarazteko, konpentsatzeko eta itzultzeko 1ZENBATEKOA euro".

3. Laugarren apartatuan, "Gatazka ez onartzea" izenekoan, honela dio ZAEAk aurkeztutako alegazio idazkiak:

"Kasu honetan, alderdi honen iritzia da ez dagoela gatazkarik, ez dagoelako desadostasunik Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, 1ENTITATEA entitatea desegin zenean kitatu gabe geratu zitzaizkion BEZ saldoak konpentsatzeko edo, kasua bada, itzultzeko eskumena duen Administrazioa zein den zehazteko. Izan ere, Estatuko Zerga Administrazioak bere gain hartu ditu S.A. xurgatzaileak 2008ko ekitaldian egindako aitortpenei dagozkien saldo horiek denak, ZAEAk 2008ko 05 epealdiari buruz egindako behin-behineko likidazioaren bitartez.

Beraz, Arbitraje Batzorde horren aurrean gatazka sorraraz lezakeen eztabaidarik ez dagoenez, irizten da Batzorde horrek deklaratu behar duela ez duela onartzen Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatutako gatazka".

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2009	R4/2012	2012/03/30	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZaren saldoak pasatzea (xurgapena)

Ondorioz, ZAEAk Arbitraje Batzordeari eskatzen dio "4/2009 gatazkan garaiz eta forman aurkeztutzat har dezala alegazio idazki hau eta, bertan azaldutakoaren arabera, erabaki dezala gatazka izapidetzeko ez onartzea, ez dagoelako desadostasunik Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Estatuko Zerga administrazioaren artean, azken honek bere gain hartu duelako xurgatuak konpentsatzeko zeukan jasandako BEZaren saldo osoa kudeatzeko eskumena, xurgatzaileari aukera emanda saldo horiek konpentsatzeko".

4. Arbitraje Batzorde honek 2011ko martxoaren 28an emandako R8/2011 ebazpenean (12/2009 espedientea), egun berean emandako R9/2011 ebazpenean (17/2009 espedientea) eta 2011ko maiatzaren 26an emandako R16/2011 ebazpenean (25/2010 espedientea) adierazi genuen bezala, ZAEAk Arbitraje Batzorde honi eskatzea "gatazka hau ondorioz gabe utz dezala", azken batean, bere uzian atzera egitea da edo, zehatzago esanda, Administrazio horren aurka sustatu delako gatazka, bera ez delako izan planteatu duena, uziari amore ematea da. Oraingoan erabili den adierazmoldea desberdina da, baina oso antzekoa, eta horregatik, ondorio bera izan behar du: amore ematea, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren uziaren aurrean.

Hala ere, amore ematearen figura ez du aurreikusten 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, eta lege hori da Arbitraje Batzorde honen Erregelamenduaren (abenduarien 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartuaren) osagarri eta ordezkoko gisa aplikatu beharrekoa, Erregelamendu horretan bertan 8. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aitzitik, figura hori aurreikusita dago 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenean, 75. artikuluko 2. apartatuan ezartzen baitu: "demandatuek amore emandakoan, epaile edo auzitegiak, beste izapidetik gabe, demandatzailearen uziekin bat datorren epaia emango du, non eta horrek ez duen ordenamendu juridikoa nabarmen hausten...".



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
4/2009	R4/2012	2012/03/30	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZaren saldoak pasatzea (xurgapena)

30/1992 Legean aurreikusitako figura, eskubideari uko egiteaz gain –eta hori ez da aplikagarria kasu honetan–, atzera egitea da; 91.2 artikuluan xedatzen baitu: "Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek". Atzera egitea, prozedura amaitzeko modu gisa, aplikatu izan du lehenago ere Arbitraje Batzorde honek, bere kontra gatazka planteatu zaion Administrazioak espresuki amore eman duenean gatazka sustatu duen Administrazioaren aurrean; esaterako, 2010eko abenduaren 20ko 2/2010 ebazpenean, 34/2008 espedientean emandakoan. Amore emateak ez bezala, atzera egiteak ez du eskatzen organo administratiboak auziaren funtsari buruzko iritzia espresuki ematerik, horrek, bistan denez, aldatzen ez dituen arren ebazpenetik eratortzen diren ondorio materialak.

Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak

## ERABAKITZEN DU

1. ZAEAREN amore ematea onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatutako gatazkan eta, ondorioz, deklaratzeko ZAEARI dagokiola 1 ENTITATEA sozietateak, 2 ENTITATEA sozietateak xurgatu zuenean, konpentsatzeko zeuzkan BEZ saldoak konpentsatu eta itzultzea.
2. Agintzea jarduketak amaitu eta artxibatu daitezela, eta bidalitako dokumentazio guztia atzera itzul dadila.